



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

GIZARTE
ETA KOMUNIKAZIO ZIENTZIEN
FAKULTATEA
FACULTAD
DE CIENCIAS SOCIALES
Y DE LA COMUNICACIÓN



Gizarte eta
Komunikazio
Zientzien Fakultatea

KOMUNIKAZIO PLANA

www.ehu.eus/gkz-csc

Edukien Taula

Sarrera	3. orr.
Testuingurua: Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea	5. orr.
Planaren metodologia	7. orr.
Helburu orokorrak eta espezifikoak definitzea	10. orr.
KBBS interes taldeak	11. orr.
Ekintzen plana	12. orr.
Planaren jarraipena eta kontrola	36. orr.

SARRERA



Komunikazio Plan honen helburua da komunikazio sistema propio bat ematea Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultateari, bere egitekoa, balioak, identitatea eta irudi korporatiboa zabaldu ahal izateko, xede publikoei zuzendutako eduki guztien kudeaketa erraztuz, eta parte hartzera, elkarrizketara eta gardentasunera irekitako komunikazio sistema bat proposatuz. Funtsezkoa da erakunde batentzat estrategia bat eta komunikazio plan bat izatea. Izan ere, UPV/EHUren plan estrategiko berriak dioenez, ikastegi publiko garen aldetik, lagundu behar dugu "ezagutza kulturala, zientifikoa eta teknikoa zabaltzen". Alde horretatik, komunikazioa, bere tresna eta teknika multzoarekin, ezagutza gizartera transferitzeko oinarritzko zutabeetako bat da. Gure betebeharra da gizarteari eta xede publikoei jakinaraztea gure lorpenak, gaitasun produktiboa eta ikertzailea, prestakuntza eta irakaskuntza funtzioa, bai eta ikastegiaren funtzionamendurako behar den edozein informazio eduki ere. Kontatu behar dugu zer garen eta zer egiten dugun, eta nola inbertitzen ditugun publikoak diren eta gizarteak ematen dizkigun ekonomia eta giza baliabideak.

Komunikazioak ahalbidetzen digu informazio fluxuak ezartzea, iritzi publikoa sortzea eta kanpo nahiz barne komunikazio bideak ezartzea gure hartzaileekin (gure ikastegiaren plan estrategikoan finkatuak). Horrela, unibertsitateko kide guztiek parte har dezakete, edukiak eta ezagutzak partekatuta.



Komunikazio plan hau kokatzen da gure fakultatearen 2022-2026 Plan Estrategikoaren barruan, eta modu egituratu eta ordenatu batean biltzen ditu Kalitatearen Barne Bermerako Sistemaren prozeduren garapenetik eratorritako oinarritzko komunikazio ekintzak. Kontuan hartzen du interes talde multzo askotariko bat: barne taldeak (ikasleak, AZP, irakasle-ikertzaileak) nahiz kanpo taldeak (egresatuak, enplegatzailerak, etorkizuneko ikasleak, erakunde publikoak eta pribatuak, hedabideak eta gizartea oro har).

Komunikazioaren tresna multzoak aukera emango digu gure interes taldeen aurrean erantzuteko, erakundeak bere eginkizunetan bultzatzen dituen balioak partekatuz, erantzukizun sozial korporatibobaten mesedetan.

Helburu horiek betetzeko, beharrezkoa da komunikazio egoki bat ahalbidetuko duten jarduera guztiak antolatzen eta orientatzen lagunduko duen plan bat garatzea, eta esparru horretan kokatu eta koordinatu behar da fakultatearen kanpo eta barne komunikazioa.

2022ko irailean, 2022-2026 Plan Estrategikoa onartu zen. Ondorioz, proposamen honek koherentea izan behar du fakultatearen egitekoaren, ikuspegiaren eta balioen definizio berriarekin, plan horretan era koordinatuan definitzen diren komunikazio arloko helburuak eta ekintzak garatuta. EMAN TA ZABAL ZAZU. Gure unibertsitatearen marka leloak komunikazio plan honen espiritua islatzen du.



TESTUINGURUA

Gizarte eta Komunikazio
Zientzien Fakultatea



Duela berrogei urte, 1981eko urriaren bian, sortu zen ofizialki gure Fakultatea, hasiera batean Euskal Herriko Informazio Zientzien Fakultatea izena hartu zuena. Bere sorrera ez zen erraza izan. Diktaturaren lanbroak desagerrarazi gabe zirauen oraindik, baina errealitatea askatasun osoz komunikatzeko ilusioak eta irrikak kazetari gazte belaunaldi oso bat gidatu zuten.

Ofizialki eratu aurretik, Bartzelonako Unibertsitate Autonomoaren (Bellaterra) babesean eman zituen lehen urratsak. Kataluniako unibertsitatearen konplizitatearekin, kazetaritza fakultate propioa izatearekin amesten zuen ikasle eta irakasle taldearen ekimen hura 1977ko urrian ernetzen hasi zen, Bilboko Unibertsitate Autonomoak eskainitako Medikuntza Fakultateko ikasgeletan. Garai ilun baina itxaropentsu haietan, unibertsitate hasiberri hura sustatzeko balio izan zuen lelo bat zabaldu zen: "Euskadik euskal informatzaileak behar ditu".

Izan ere, Euskal Herriak informatzaile profesionalak behar zituen. Gaztelaniaz. Baina, bereziki, euskaraz. 1981ean, azkenik, fakultatearen sorrera ofiziala argitaratu zen Estatuko Aldizkari Ofizialean:

Fakultate honen eta osatzen duten pertsonen hazteko grinak eta euskal gizartearen prestakuntza eta ezagutza eskaerei aurre egiteko bokazio argiak bigarren mugarri bat izan zuen 1988-89 ikasturtean, dekanotza taldearen ekimenez Soziologia eta Zientzia Politikoko ikasketak eskaintzea bultzatu zenean. Fakultate mistoa izatera pasa zen, aipatu bi ezagutza arloak biltzen zituena eta Gizarte eta Informazio Zientzien Fakultatea izena hartu zuena. Halaber, Kazetaritzako ikasketa-planaren bigarren zikloan eskaintzen ziren publizitate ikasketen eta irudi zein zinema ikasketen espezializazioekiko eskaria eta interesa geroz eta handiagoa zela agerikoa zen. Horrenbestez, 1995-96 ikasturteetik aurrera, Publizitate eta Harreman Publikoetako eta Ikus-entzunezko Komunikazioko lizentziaturak eskaintzen hasi ziren. Era berean, Soziologia eta Zientzia Politikoko ikasketak bereizi eta lau urteko titulazio gisa eskaini ziren.

Fakultate hasiberri hura bost gradu, hiru gradu bikoitz, hamar master ofizial, bi berezko eta graduondoko titulu eta bost doktorego programa biltzen dituen zentroa da gaur egun. Horrezaz gain, 27 ikerketa-talde ere barne hartzen ditu. Lankidetzeta estua du ikus-entzunezko informazioaren eta komunikazioaren arloan esanguratsu diren erakunde eta entitateekin eta, oro har, gizartearekin. Hala, 700 lankidetzeta-hitzarmen ditu, gutxi gorabehera. Aipamen dualeko zigilua du bost gradutan.



eta nazioartekotze ibilbidearen zigilua Ikus-entzunezko Komunikazioaren graduan. UPV/EHUko hirugarren ikastegia da mugikortasun egoeran den ikasle kopurua aintzat hartuta, eta % 47 hazi da atzerriko hizkuntzaren eskaintza azken hiru urtekoan. Euskal Autonomia Erkidegoan eta bere ingururik hurbilenean, erreferentziazko ezagutza eta prestakuntza eskaintza publikoa bezala nabarmentzen da. Ez alferrik, zientzia sozialen esparruko hiru titulazioak (Zientzia Politikoa eta Kudeaketa Publikoa, Soziologia, eta hauek biak biltzen dituen Gradu Bikoitza) eskaintzen dituen fakultate bakarra da EAEn.

Osatzen duten kideen kulturak nahiz haien hobekuntza eta berrikuntza espirituak ere eratu dute egun ezagutzen dugun Fakultatea. Ahalegin horri esker, hainbat sari bereganatu ditu Fakultateak esparru ezberdinetan: unibertsitate mailako kalitate sariak (AUDIT), kudeaketa mailakoak (EUSKALIT "A ZILARRA") eta euskararen erabilerari dagozkionak (Bikain Zilarra), besteak beste. Eta, hori guztia gutxi balitz, komunikazioaren eremuko saririk esanguratsuenetarikoa ere erdietsi ditu (Rikardo Arregi Saria eta Euskal Kazetarien Elkargoko Saria).



PLANAREN METODOLOGIA



3.1. Egoeraren diagnostikoa eta AMIA analisia

Ikastegiaren Kalitatearen Baren-Berme Sistemaren (KBBS) adierazleen analisitik abiatuta, fakultatearen komunikazioaren egoerari buruzko diagnostiko bat egin du dekanoko taldeak. Azken agintaldietan, hobetu egin dugu fakultatearen kanpo eta barne komunikazioa, UPV/EHUren komunikazio planaren laguntzaz. Dena dela, beti dago zer egin eta zer hobetu. Indartu egin behar da ikastegiaren komunikazio egitura, arin erantzuteko gero eta handiagoak eta askotarikoagoak diren gure inguruko premiei. Komunikazio plan bat gida bat da, eta erabakiak hartzen laguntzen digu, posizionamendu egoki bat lortzeko eta harreman onak ezartzeko gure inguruarekin.

Horretarako, oinarritzkoa da euskal gizartera hurbiltzea, enplegatzaileekiko harremanak hobetzea eta gure irudia eta posizionamendua indartzea inguruko hedabideetan. Gainera, sakondu egin behar dugu ikastegiko kolektiboaren arteko barne kohesioan, eta gure fakultateko kide izatearen sentimendua eta harrotasuna indartu. Ikastegiaren prestakuntza eskaintzari dagokionez, gure erronka da modu eraginkor batean sustatzea eskaintzen ditugun graduoko eta graduondoko ikasketak, bai eta fakultatearen irudi berritzaile eta erakargarria ere.

Fakultateak komunikazio arloan dituen behar horietara eta beste batzuetara hurbiltzeko, AMIA analisi bat egin da, emaitzatzat izan dituen 30 suposizio baino gehiago, indarguneen eta ahulguneen arteko eta mehatxuen eta aukeren arteko orekarekin. Analisi hori kontuan izan da ondoren ekintzak zehazteko egin den prozesuan.

3.2. Ikastegiaren plan estrategikoaren analisia

Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultateak duela gutxi amaitu du 2022-2026 urteetarako bere Plan Estrategikoa egiteko prozesua. Ikastegiaren hirugarren plana da eta indartu egiten du kalitatean eta etengabeko hobekuntzan oinarritutako kudeaketa. Txostenak deskribatzen du fakultatearen gogoeta estrategikoa burutzeko prozesua, bai eta prozesu horren etapa bakoitzean ateratako ondorioak ere.

Plan Estrategikoaren arabera, "aintzat harturik UPV/EHUtik marraztutako plana eta kudeaketa alorrean jasotako ebaluazioak, zeharkako ardatzat hartzen da komunikazioa, hobetzeko bai ikastegi barneko komunikazioa bai ikastegiaren proiektzioa gizartean." 8. helburuak, Gobernantzari eskainitako ardatz estrategikoaren barruan, berekin dakar "barne eta kanpo komunikazio plan bat definitzea eta ezartzea" izaneko ekintza. Plan horrek egokitu egin behar du komunikazio estrategia apropos bat ezartzeko funtsezko helburura, eta, beraz, tresna bat izan behar du ahalbidetzeko komunikazio arloan burutu beharreko zereginen egituratzea, sistematizazioa, koordinazioa, trukea, programazioa eta gogoeta. Ez litzateke ulertuko martxan jartzea Komunikazio Plan bat kontuan izan gabe ikastegiaren Plan Estrategikoa, azken horrek 8 helburu dituelako zuzenean lotuak komunikazioaren zeharkako ardatzarekin. Izan ere, ikastegiaren interes-taldeen Plan Estrategikoaren metodologian komunikazio arloan egindako ekarpenak funtsezkoak izan dira dokumentu hau egiteko..



Ardatz estrategikoak. Plan Estrategikoa 2022/26.



Zeharkako ardatzak. Plan Estrategikoa 2022/26.

3.3. UPV/EHUren komunikazio planaren analisia

Kontuan izanik komunikazio plan batek komunikazio arloan burutu beharreko zereginen egituratzea, sistematizazioa, koordinazioa, trukea, programazioa eta gogoeta sustatu behar dituela, funtsezkoa da planaren testuingurua eta egiteko zehatza finkatzea. Kasu honetan, fakultatearen komunikazio estrategiak aintzat hartu behar du Unibertsitatearen plana bera, eta aztertu behar ditu plan horretan ezarritako helburuak eta ekintzak.

UPV/EHUren 2022-2025 Plan Estrategiko berriak esplizituki aitortzen du komunikazioaren garrantzia, eta agerian uzten du unibertsitateko kideen konpromisoa, aintzat hartzean arlo hau gure unibertsitatearen bost ekintza esparru estrategikoetan, gaur egungoak nahiz etorkizunekoak. Plan Estrategiko berriak funtsezko bost arlo bereizten ditu: Prestakuntza; Ikerketa eta Ezagutzaren Transferentzia; Kultura eta Gizartea; Pertsonak; Gobernantza eta Baliabideak. Eta lau zeharkako ardatz garrantzitsu: Nazioartekotzea; Eraldaketa Digitala; Garapen Jasangarrirako Helburuak (GJH); Komunikazioa. Azken ardatz hori pisu handikotzat hartzen da, garrantzia ematen zaiolako unibertsitatearen zerbitzu eta egitekoaren jomuga diren interes taldeekin komunikatzeko bide eraginkor eta egonkorak ezartzeko konpromisoari.

Izan ere, dokumentuan hitzez hitz irakur daitekeenez, "komunikazioak funtsezko zeregina du UPV/EHUn, eta iritsi da garaia etengabeko elkarrizketa eta kanpo komunikaziorako bideak eraikitze gure ingurune sozioekonomiko eta kulturalarekin. Elkarrizketa horretan, unibertsitateko kide guztiek lagundu behar dute, gure baitan sortutako ezagutza gizartearekin partekatze aldera. Testuinguru horretan, oinarritzkoa da (ere) barne komunikazioko mekanismoak ezartzea, informazio fluxu egonkorrak eta etengabekoak ahalbidetuko dituztenak".

UPV/EHUren komunikazio estrategia aztertzeak aukera eman dio Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultateari arreta jartzeko helburu egokietan, eta ekintzen bikoiztasuna saihesteko. Kontua ez da alde batera uztea plan orokorrak jada abian jarri dituen ekintzak, horiek kontuan hartzea baizik, arreta jartzeko dagoeneko abian direnen osagarri izango diren ekintzetan. Kontuan izan behar da UPV/EHUren komunikazio estrategian finkatutako ekintza gehienek jomuga direla fakultatearen estrategiaren publiko berberak (euskal gizarte oro har, ikastegietako langileak, etorkizuneko ikasleak...), eta ekintza horiek modu zentralizatuan egiten direla.

3.4. Bateratze lana ikastegiko adituekin

Funtsezkotzat jo da bateratzea ikastegiaren komunikazio estrategia komunikazio plan eta estrategietan adituak diren irakasle-ikertzaileekin. Langile horiek ebaluazio-feedback bat egin dute hobekuntzarako iradokizunekin. Ondoren, kontraste bat ezarri da dekanato-taldeko hiru ordezkari (komunikazio eta gizarte proiektuorako dekanordea, plangintza estrategikoa eta kalitatearen dekanordea, eta praktiken eta lan-orientaziorako dekanordea) eta teknikari batek egindako hasierako proposamenaren azterketaren, eta adituek egindako ekarpenen artean. Azkenik, planaren prototipoa zuzendu eta aldatu egin da, kontraste-azterketa hori eta jasotako ekarpenak eta iradokizunak kontuan hartuta.



HELBURU OROKORRAK ETA ESPEZIFIKOAK DEFINITZEA

Komunikazio Planaren Helburu Orokorrak (KPHO) sortu dira ikastegiaren egungo egoeraren diagnostikoa, AMIA analisi bat, ikastegiaren plan estrategikoa eta UPV/EHUren komunikazio plana kontuan izan dituen estrategia metodologikotik. Helburu Orokorretatik, 7 KPHE (Komunikazio Planaren Helburu Espezifikoak) sortu dira.

1. Helburu Orokorra. Transferentzia eta fakultatearen irudia sustatzea gizartea.

- 1.1. (1.1 KPHE) Fakultatea sendotzea gizarte eta kultura erreferente gisa, Leioa eremuan eta euskal gizartean oro har.
- 1.2. (1.2 KPHE) Ikastegiaren ikerketaren ikusgarritasuna hobetzea gizartean, bai hurbileko ingurunean bai nazioartean.

2. Helburu Orokorra. Ikastegiaren prestakuntza eskaintza eta eskaintza orientatzailea sustatzea.

- 2.1. (2.1 KPHE) Etorkizuneko irakasleak erakartzea, graduako eta graduondoko eskaintzaren zabalkunde eraginkorrari esker.
- 2.2. (2.2 KPHE) Ikasleentzako argibide zerbitzu ona eskaintzea.
- 2.3. (2.3 KPHE) Ikastegiaren prestakuntza eskaintzaren balioa nabarmentzea gizartean.

3. Helburu Orokorra. Gardentasuna, bizikidetzeta eta fakultateko kide izatearen zentzua sustatuko dituen barne komunikazioa bultzatzea.

- 3.1. (3.1 KPHE) Barne komunikazio eraginkorra bermatzea ikastegiko kolektiboen artean.
- 3.2. (3.2 KPHE) Lan giro ona eta ikastegiko kide izatearen sentimendua sustatzea.



KBBS INTERES TALDEAK

Fakultatearen plan estrategikotik eta kalitatea bermatzeko sistematik sortutako komunikazioaren helburu orokorrek eta espezifikoek barne nahiz kanpo komunikazioa dute xede. Barne eta kanpo komunikazioaren helburuak zehaztuta daude interes taldeen arabera, eta bereizi egiten dira horregatik bai tresnak bai edukiak komunikazio plan estrategiko batean.

Komunikazio plan bat proposatzean eta komunikazio ekintzak zehaztean, aintzat hartu behar dira ikastegiaren KBBSn definitutako interes taldeak eta interes talde bakoitzerako helburu espezifikoak.

Etorkizuneko ikasleak	Kanpokoak
Erakunde enplegatzaileak eta profesionalak	Kanpokoak
Hedabideak	Kanpokoak
Batxilergoko ikastetxeetako orientatzaileak	Kanpokoak
Egresatuak	Kanpokoak
Gizartea	Kanpokoak
Ikasleak	Ikastegi barrukoa
AZP	Ikastegi barrukoa
Fakultateko komunitatea (irakasle-ikertzaileak, AZP eta ikasleak)	Ikastegi barrukoa
Irakasle-ikertzaileak	Ikastegi barrukoa
Ikastegiko zuzendaritza taldea	Ikastegi barrukoa
UPV/EHUren Komunikazio Bulegoa	UPV/EHU barrukoa
Errektoregoa	UPV/EHU barrukoa



EKINTZEN PLANA

Helburuak eta interes taldeak zehaztu ondoren, 2023-2026 aldirian burutuko diren ekintzak aipatuko ditugu. Ekintzak multzokatu dira ordena batean, kontuan izanik lehenetsuneko zer helbururi dagozkion, baina lotuta komunikazio planaren beraren eta ikastegiaren plan estrategikoaren beste helburu batzuekin. Zehazten dira, halaber, ekintzaren estrategia, ekintzaren jomuga diren xede publikoak, emaitzen ebaluazioa, pertsona edo kolektibo arduraduna, eta ekintza betearazteko data.

Beraz, atal honetan adierazten dira 2023-2026 Komunikazio Planak proposatzen dituen 37 ekintzak, hiru helburu orokorren arabera multzokatuak.

1. Helburu Orokorra.

Fakultatearen irudia sustatzea gizartean, erreferentziazko ikastegi gisa.

1.1. (1.1 KPHE) Fakultatea sendotzea gizarte eta kultura erreferente gisa, Leioa ingurunean eta euskal gizartean oro har.

EKINTZA	1.1.1. Kanpoko erakundeek jardueretan, jardunaldietan eta aurkezpenetan parte har dezaten erraztea, ikastegiaren prestakuntza eta kultura garapenean inplikatzuz eta transferentzia sustatuz.
LOTUTAKO HELBURUAK	1.2 KPHE / 2.3 KPHE
ESTRATEGIA	Topaketak eta lankidetzak sektorial/kulturalak sustatzea, hedabideekin eta hainbat erakunderekin (DEMA, BIME, ZITEK, elkarteak, jaialdiak, Tabakalera, museoak, udalak, Alondegia, Bilbao Arte, etab.).
XEDE PUBLIKOAK	Erakunde enplegatzaileak.
EMAITZEN EBALUAZIOA	Erakunde kolaboratzaileekin eginiko topaketa eta lankidetzak kop.
ARDURADUNAK	Komunikazio Dekanordetza eta Plangintza Estrategiko eta Kalitate Dekanordetza.
DATA	Hilabetea berdina da 2023-2026.
ARDATZ / HELBURU ESTRATEGIKOA	4. INGURUNEA ETA GIZARTEA / 4. Lankidetzak sareak eta lanbide eta gizarte ingurunearekiko aliantzak sustatzea.

EKINTZA	1.1.2. Komunikazio bulegoaren eta gure komunikazio zuzendaritzaren arteko komunikazio kanala indartzea, aliantzak sortzeko.
LOTUTAKO HELBURUAK	1.2 KPHE / 2.1 KPHE.
ESTRATEGIA	Ikastegiaren oihartzun mediatikoa zabaltzeko, informazio garrantzitsua helaraztea Komunikazio Bulegoari aldian behin. Adibidez: Enpresa ikasgelak eginiko urratsak, ikerketa lanak, ikastegiko kideek antolatutako batzar eta jardunaldi akademikoen agendak, ekitaldi eta hitzaldien agenda, ikasleek irabazitako sariak, gizarte oihartzuna irakasle-ikertzaileen edo ikasleen aipamen edo merezimenduengatik, etab. Bulegoari txosten bat eskatzea hedabideetan Fakultateak izan duen presentziari buruz (urtekoa).
XEDE PUBLIKOAK	UPV/EHUren Komunikazio Bulegoa.
EMAITZEN EBALUAZIOA	Ondo eginikoen, akatsen eta gorabeheren ebaluazio kualitatiboa, jarraipen batzordearen urteko bileran.
ARDURADUNAK	Komunikazio Dekanordetza.
DATA	Hilero. 2023-2026.
ARDATZ / HELBURU ESTRATEGIKOA	4. INGURUNEA ETA GIZARTEA / Ikastegiaren komunikazioa eta jardueraren proiektioa hobetzea: fakultatearen presentzia gizartean.

EKINTZA	1.1.3. Aldian behin, irakasle-ikertzaileak kontzientziazatzea kolektibo horrek antolatutako ekitaldi/hitzaldi/jardunaldiei buruzko informazioa Komunikaziora helaraztearen garrantziaz.
LOTUTAKO HELBURUAK	1.2 KPHE / 3.1 KPHE / 3.2 KPHE
ESTRATEGIA	Funtsezko baldintza gisa ezartzea ekitaldi/hitzaldi/konferentzien zabalkunde lana fakultateari kultura jardueretarako laguntzak eskatzen dizkieten pertsoneri. Konpromiso horren betebeharra jakinaraziko da laguntza emateko komunikatuaren bidez, bai eta mezu elektronikoroigarri baten bidez ere.
XEDE PUBLIKOA	IRI (Irakasle ikertzaileak).
EMAITZEN EBALUAZIOA	Web orriko agendan iragarritako ekitaldi eta jardunaldi kop.
ARDURADUNA	Komunikazio Dekanordetza.
DATA	Urria eta otsaila. 2023-2026.
ARDATZ / HELBURU ESTRATEGIKOA	4. INGURUNEA ETA GIZARTEA / 5. Ikastegiaren jardueraren komunikazioa eta proiektzioa hobetzea: fakultatearen presentzia gizartean.

EKINTZA	1.1.4. Irudi eguneratu bat mantentzea sare sozialetan.
LOTUTAKO HELBURUAK	1.2 KPHE / 2.1 KPHE / 2.3 KPHE / 3.1 KPHE / 3.2 KPHE.
ESTRATEGIA	Multimedia teknikariei helaraztea iragarki kartelen irudiak, ekitaldien irudiak, promozio edukiak, kanpainak, etab. Aldian behin, irakasle-ikertzaileei gogoratzea eginiko ekitaldien irudiak bidaltzearen garrantzia.
XEDE PUBLIKOAK	Ikastegiko komunitatea, Gizartea.
EMAITZEN EBALUAZIOA	Sare sozialetako audientzien txostena (estatistikak, iritziak) Urteko jarraitzaile berrien kop.
ARDURADUNA	Komunikazio Dekanordetza.
DATA	2023-2026.
ARDATZ / HELBURU ESTRATEGIKOA	2. PERTSONAK ETA KOMUNITATEA / 4. INGURUNEA ETA GIZARTEA.

1.2 Ikastegiaren ikerketaren eta transferentziaren ikusgarritasuna hobetzea gizartean, bai hurbileko ingurunean bai nazioartean.

EKINTZA	1.2.1. Ikertaldeek ekarpenak hedatzea.
LOTUTAKO HELBURUAK	1.1 KPHE / 3.1 KPHE / 3.2 KPHE.
ESTRATEGIA	Fakultateko ikertaldeei proposatzea hedabideen bidez zabal daitezkeen ekarpen garrantzitsuen berri emateko ikastegiari. Ikerketari buruzko urteko memoria argitaratzea eta ikerketa atala webgunean eguneratzea (urtekoa).
XEDE PUBLIKOAK	Gizartea, UPV/EHUren Komunikazio Bulegoa.
EMAITZEN EBALUAZIOA	Jasotako ekarpen kop.
ARDURADUNA	Kalitate Dekanordetza. Komunikazio Dekanordetza.
DATA	2023-2026.
ARDATZ / HELBURU ESTRATEGIKOA	1. PRESTAKUNTZA ETA IKERKETA / 4. INGURUNEA ETA GIZARTEA.

ERINTZA	1.2.2. Enpresa ikasgelarekin lotutako akademia, gizarte eta transferentzia aurrerapenak zabaltzea.
LOTUTAKO HELBURUAK	1.1 KPHE / 3.1 KPHE / 3.2 KPHE.
ESTRATEGIA	Komunikazio bulegoari helaraztea proiektuaren onurak, aurrerapenak eta berritasunak. Aurrerapen horiek zabaltzea irakasle-ikertzaileen eta ikasleen artean, informazio mezuen bidez.
XEDE PUBLIKOAK	Irakasle-ikertzaileak, ikasleak, Transferentziaren arloko Errektoreordetza, Gizartea.
EMAITZEN EBALUAZIOA	Web albisteen eta informazio mezuen kop.
ARDURADUNA	Plangintza Estrategiko eta Kalitate Dekanordetza, Komunikazio Dekanordetza.
DATA	Ekaina 2024-2025-2026.
ARDATZ / HELBURU ESTRATEGIKOA	4. INGURUNEA ETA GIZARTEA / 4. Lankidetzaren sareak eta lanbide eta gizarte ingurunearekiko aliantzak sustatzea.

2. Helburu Orokorra.

Ikastegiaren prestakuntza eskaintza eta eskaintza orientatzailea sustatzea.

2.1. (2.1 KPHE) Etorkizuneko ikasleak erakartzea graduoko eta graduondoko eskaintzaren zabalkunde eraginkorrari esker.

EKINTZA	2.1.1. Ikastegiaren prestakuntza eskaintza sustatzea Ateak Zabaltzeko Egunean.
LOTUTAKO HELBURUAK	1.2 KPHE.
ESTRATEGIA	Irakasle-ikertzaileen kolektiboa inplikatzeko, graduari buruzko informazio saio erakargarriak eskaintzeko. Aldi berean, AZPko langileak inplikatzeko, egunaren antolakuntza-logistika egokirako.
XEDE PUBLIKOAK	Etorkizuneko ikasleak.
EMAITZEN EBALUAZIOA	IAZ (Ikasleentzako Argibide Zerbitzua) ren Balorazio Txostena.
ARDURADUNA	Komunikazio Dekanordetza eta IAZ.
DATA	Urtarrila, otsaila eta martxoa. 2022-2026.
ARDATZ / HELBURU ESTRATEGIKOA	1. PRESTAKUNTZA ETA IKERKETA / 1. Graduoko eskaintza finkatzea / 2. Graduondoko eskaintza hobetzea.

EKINTZA	2.1.2. Ikastegiaren prestakuntza eskaintzarenganako erakarpena indartzea, batxilergoko ikasleentzako Jarduera Praktikoek bidez.
LOTUTAKO HELBURUAK	1.2 KPHE.
ESTRATEGIA	Irakasle-ikertzaileen kolektiboa inplikatzea, graduei buruzko informazio saio praktikoa erakargarriak eskaintzeko. Aldi berean, AZPko langileak inplikatzea, egunaren antolakuntza-logistika egokirako.
XEDE PUBLIKOA	Etorkizuneko ikasleak.
EMAITZEN EBALUAZIOA	IAZren Balorazio Txostena.
ARDURADUNA	IAZ / Komunikazio Dekanordetza.
DATA	Urtarrila (eskaera), apirila eta maiatza. 2023-2026.
ARDATZ / HELBURU ESTRATEGIKOA	1. PRESTAKUNTZA ETA IKERKETA / 1. Gradu eskaintza finkatzea.
EKINTZA	2.1.3. Graduondokoen arloko Errektoreordetzak antolatutako Master Week-aren zabalkunde ekintzak egitea.
LOTUTAKO HELBURUAK	1.2 KPHE / 3.1 KPHE.
ESTRATEGIA	Zabalkunde sare sozial, mailing, pantaila eta web bidez.
XEDE PUBLIKOAK	Ikasleak (4. mailakoak nagusiki), Egresatuak.
EMAITZEN EBALUAZIOA	Graduondoko zuzendaritzak eginiko ebaluazio kualitatiboa eta kuantitatiboa.
ARDURADUNA	Komunikazio Dekanordetza eta graduondokoen zuzendaritza.
DATA	Martxoa. 2023-2026.
ARDATZ / HELBURU ESTRATEGIKOA	1. PRESTAKUNTZA ETA IKERKETA / 2. Graduondoko eskaintza hobetzea.

EKINTZA	2.1.4. Kanpaina propio bat antolatzea masterren eskaintza zabaltzeko.
LOTUTAKO HELBURUAK	1.2 KPHE / 3.1 KPHE.
ESTRATEGIA	Graduondokotik egiten den masterren zabalkundea indartzea, gure eskaintzaren sustapen eraginkor baten bidez, laugarren mailako ikasle potentzialesi begira Horretarako, master eskaintzari buruzko informazio hitzaldiak eta saioak antolatzea izena emateko aldietan. Zabalkunde kanpaina egitea kanal guztietan. Izenburua: "Gure Masterrak".
XEDE PUBLIKOAK	Ikasleak (4. mailakoak nagusiki), Egresatuak.
EMAITZEN EBALUAZIOA	Informazio hitzaldietako entzule kop.
ARDURADUNA	Komunikazio Dekanordetza.
DATA	Maiatza. 2023-2026.
ARDATZ / HELBURU ESTRATEGIKOA	1. PRESTAKUNTZA ETA IKERKETA / 2. Graduondoko eskaintza hobetzea.
EKINTZA	2.1.5. Graduen promozio liburuxkak aldiari behin berrikustea, kontatzea eta berritzea.
LOTUTAKO HELBURUAK	1.2 KPHE / 3.1 KPHE.
ESTRATEGIA	Aleak kontatzea ikasturte bakoitza amaitzean. Berritasunak eta dagozkion zuzenketak sartzeko formatu digitalean (urteko edozein hilabetetan).
XEDE PUBLIKOA	Etorkizuneko ikasleak.
EMAITZEN EBALUAZIOA	Eginiko ekintzaren egiaztapena.
ARDURADUNA	Komunikazio Dekanordetza.
DATA	Uztaila. 2023-2026.
ARDATZ / HELBURU ESTRATEGIKOA	1. PRESTAKUNTZA ETA IKERKETA / 1. Graduon eskaintza finkatzea.

EKINTZA	2.1.6. Fakultatearen argazki bankua berritzea, promozio helburuetarako.
LOTUTAKO HELBURUAK	1.1 KPHE / 2.2 KPHE / 3.1 KPHE.
ESTRATEGIA	Argazki saioak antolatzea ikasleekin eta irakasle-ikertzaile kolaboratzaileekin, argazki banku zabal bat osatzeko, webean, sare sozialetan eta oro har promozio materialean erabiltzeko.
XEDE PUBLIKOAK	Multimedia teknikariak, Komunikazio Dekanordetza, UPV/EHUREn Komunikazio Bulegoa.
EMAITZEN EBALUAZIOA	Argazki berri kop. Gabezia tematikoak identifikatzea, etorkizuneko saioetarako.
ARDURADUNA	Komunikazio Dekanordetza.
DATA	2023.
ARDATZ / HELBURU ESTRATEGIKOAK	1. PRESTAKUNTZA ETA IKERKETA / 4. INGURUNEA ETA GIZARTEA.
EKINTZA	2.1.7. Promozio bideoak berritzea/egitea
LOTUTAKO HELBURUAK	1.1 KPHE / 2.2 KPHE / 3.1 KPHE.
ESTRATEGIA	Fakultateari buruzko bideoak egitea, oro har, eta gradu bakoitzari buruzkoak, bereziki, webean eta sare sozialetan argitaratzeko.
XEDE PUBLIKOAK	Etorkizuneko ikasleak, Fakultateko komunitatea, Gizartea, UPV/EHUREn Komunikazio Bulegoa.
EMAITZEN EBALUAZIOA	Eginiko bideo kop.
ARDURADUNA	Komunikazio Dekanordetza eta UPV/EHUREn Komunikazio Bulegoa.
DATA	2024.
ARDATZ / HELBURU ESTRATEGIKOAK	1. PRESTAKUNTZA ETA IKERKETA / 4. INGURUNEA ETA GIZARTEA.

2.2. Ikasleentzako argibide zerbitzu ona eskaintzea

EKINTZA	2.2.1. Modu eraginkorrean helaraztea ikasleei mugikortasun programei, praktikei, curriculumetik kanpoko prestakuntzari eta abarri buruzko informazioa.
LOTUTAKO HELBURUAK	3.1 KPHE.
ESTRATEGIA	Arduradunei eskatzea fakultateak informazioa zabaltzeko dituen komunikazio kanalak erabiltzeko.
XEDE PUBLIKOA	Ikasleak.
EMAITZEN EBALUAZIOA	Zabalkunde eraginkorraren balorazioa ordezkariekin eginiko bileran.
ARDURADUNA	Akademia Antolakuntzako, Nazioarteko Harremanetako, Praktikak eta Lan Orientazioko, eta Gizarte Proiekzio eta Komunikazioko Dekanordetzak.
DATA	2023-2026.
ARDATZ / HELBURU ESTRATEGIKOA	1. PRESTAKUNTZA ETA IKERKETA / Nazioartekotzea sustatzea 2. PERTSONAK ETA KOMUNITATEA / 4. Tutoretza ekintza plana garatzea.
EKINTZA	2.2.2. Hitzaldiak egitea bigarren hezkuntzako ikastetxeetan.
LOTUTAKO HELBURUAK	1.1 KPHE / 2.1 KPHE.
ESTRATEGIA	Zuzeneko harremanak ezartzea bigarren hezkuntzako ikastetxeetako orientazio arduradunekin. Hitzaldi presentzialen eta online hitzaldien egutegi bat antolatzea bigarren hezkuntzako ikastetxeetan.
XEDE PUBLIKOAK	Etorkizuneko ikasleak, Orientatzaileak.
EMAITZEN EBALUAZIOA	Ikastegietako orientatzaileentzako urteko galdetegia.
ARDURADUNA	Gizarte Proiekzio eta Komunikazioko Dekanordetza.
DATA	Azaroa/abendua/urtarrila/otsaila. 2023-2026.
ARDATZ / HELBURU ESTRATEGIKOA	1. PRESTAKUNTZA ETA IKERKETA / 1. Gradu eskaintza finkatzea.

EKINTZA	2.2.3. Ateak zabaltzeko eguna bigarren hezkuntzako orientatzaileentzat.
LOTUTAKO HELBURUAK	1.1 KPHE / 2.1 KPHE.
ESTRATEGIA	Ateak zabaltzeko egun bat antolatzea eta dinamizatzea orientatzaileentzat, informazio hitzaldi, bisita gidatu eta lunch batekin, hartu-emanak estutzeko bigarren hezkuntzako ikastetxeekin.
XEDE PUBLIKOAK	Bigarren hezkuntzako orientatzaileak.
EMAITZEN EBALUAZIOA	Orientatzaileentzako galdetegia, jardunaldiaren ondoren.
ARDURADUNA	Gizarte Proiektzio Dekanordetza, Komunikazio Bulegoa.
DATA	2024ko abendua eta 2026ko abendua.
ARDATZ / HELBURU ESTRATEGIKOA	1. PRESTAKUNTZA ETA IKERKETA / 1. Gradu eskaintza finkatzea.
EKINTZA	2.2.4. Modu eraginkorrean parte hartzea EHU Azokan.
LOTUTAKO HELBURUAK	1.1 KPHE / 2.1 KPHE.
ESTRATEGIA	Graduen koordinatzaileak eta irakasle kolaboratzaileak inplikatzeko jarraitzea, ikasleak orientatzeko eta erakartzeko lan ona egiteko.
XEDE PUBLIKOAK	Etorkizuneko ikasleak.
EMAITZEN EBALUAZIOA	IAZren Balorazio Txostena.
ARDURADUNA	Komunikazio Dekanordetza eta IAZ.
DATA	Urtarrila eta otsaila. 2023-2026.
ARDATZ / HELBURU ESTRATEGIKOA	1. PRESTAKUNTZA ETA IKERKETA / 1. Gradu eskaintza finkatzea.

EKINTZA	2.2.5. Hiru campusetako enplegu bulegoekiko komunikazio harremanak sustatzea.
LOTUTAKO HELBURUAK	1.1 KPHE.
ESTRATEGIA	Aldian behingo hartu-emanak izatea bulego horiekin, egresatuek eta profesionalak gehiago parte har dezaten harremanetan.
XEDE PUBLIKOAK	Egresatuak, Erakunde enplegatzaileak, Ikasleak.
EMAITZEN EBALUAZIOA	Arduradunak ebaluazio kualitatiboa egitea.
ARDURADUNA	Praktikak eta Lan Orientazioko Dekanordetza.
DATA	2023-2026.
ARDATZ / HELBURU ESTRATEGIKOA	4. INGURUNEA ETA GIZARTEA / 4. Lankidetzaren sareak eta lanbide eta gizarte ingurunearekiko aliantzak sustatzea.

EKINTZA	2.2.6. Lan etorkizunari buruzko ekitaldiak eta hitzaldiak antolatzea.
LOTUTAKO HELBURUAK	1.1 KPHE.
ESTRATEGIA	Gradu koordinatzaileak inplikatzeko informazio ekitaldien eta hitzaldien antolakuntzan, agente profesionalekin elkarlanean. Helburua da informazioa eta orientazioa eskaintzea ikasleen lan etorkizunari buruz.
XEDE PUBLIKOAK	Ikasleak, Gizartea, Enpresa enplegatzaileak.
EMAITZEN EBALUAZIOA	Antolatutako hitzaldi kop. Hitzaldietako entzule kop. Koordinatzaileen ebaluazio kualitatiboa.
ARDURADUNA	Akademia Antolakuntzako Dekanordetza.
DATA	Martxoa-maiatza. 2023-2026.
ARDATZ / HELBURU ESTRATEGIKOA	2. PERTSONAK ETA KOMUNITATEA / 4. Tutoretza ekintza plana garatzea.

EKINTZA	2.2.7. Modu aktiboan parte hartzea ORIENTATU programan.
LOTUTAKO HELBURUAK	3.1 KPHE.
ESTRATEGIA	Irakasle bat edo bi aukeratzea ORIENTATU programaren lantaldean sartzeko (2023ko edizioan atal bat eskainiko die komunikazioko graduei). Irakaskuntza eskaintzarekin bat datorren aurkezpen bat egiten dela egiaztatzea, eta foroa aprobetxatzea harremanak estutzeko orientatzaileekin.
XEDE PUBLIKOA	Orientatzaileak.
EMAITZEN EBALUAZIOA	Ikasleen zuzendaritzaren balorazio txostena.
ARDURADUNA	Komunikazio Dekanordetza.
DATA	2023ko iraila eta urria.
ARDATZ / HELBURU ESTRATEGIKOA	2. PERTSONAK ETA KOMUNITATEA / 4. Tutoretza ekintza plana garatzea.

2.3. Ikastegiaren prestakuntza eskaintzaren balioa nabarmentzea gizartean.

EKINTZA	2.3.1. Hedabideei helaraztea gure tituluei buruzko informazio mugarren prentsa oharra.
LOTUTAKO HELBURUAK	1.1 KPHE / 1.2 KPHE / 2.1 KPHE / 3.2 KPHE.
ESTRATEGIA	UPV/EHUren Komunikazio Bulegoari helaraztea graduei edo masterrei buruzko datu garrantzitsuak (lorpenak, ikasle erreferenteak, nobedadeak, etab.).
XEDE PUBLIKOAK	Gizartea, Etorkizuneko ikasleak.
EMAITZEN EBALUAZIOA	Eginiko proposamen kop.
ARDURADUNA	Akademia Antolakuntzako, Kalitate eta Plangintza Estrategikoko eta Komunikazioko Dekanordetzak.
DATA	2023-2026.
ARDATZ / HELBURU ESTRATEGIKOA	1. PRESTAKUNTZA ETA IKERKETA / 4. INGURUNEA ETA GIZARTEA.

EKINTZA	2.3.2. Enpleguari lotutako gizarte ekitaldiak eta ekintzak babestea.
LOTUTAKO HELBURUAK	1.1 KPHE / 1.2 KPHE / 2.1 KPHE.
ESTRATEGIA	Jardunaldietan eta ekitaldietan parte hartzea; hala nola zabalkunde handiagoa eta agente guztien inplikazioa behar dituen enplegu azokan.
XEDE PUBLIKOAK	Egresatuak.
EMAITZEN EBALUAZIOA	Fakultateak ekitaldi mota honetan duen presentzia kuantifikatzea.
ARDURADUNA	Praktikak eta Lan Orientazioko Dekanordetza.
DATA	2023-2026.
ARDATZ / HELBURU ESTRATEGIKOA	4. INGURUNEA ETA GIZARTEA.

3. Helburu Orokorra.

Gardentasuna, bizikidetza eta fakultateko kide izatearen zentzua sustatuko dituen barne komunikazioa bultzatzea.

3.1. Barne komunikazio eraginkorra bermatzea ikastegiko kolektiboen artean.

EKINTZA	3.1.1. Fakultateko batzordeen ekintzei buruzko barne komunikazioa bultzatzea.
LOTUTAKO HELBURUAK	3.2 KPHE.
ESTRATEGIA	Ikasturte bakoitzaren hasieran, mezu bat bidaltzea batzordeen arduradunei, fakultateko batzordeen bilera eta akordioetatik sortutako ekintza nagusien berri eman diezaioten Komunikazio Dekanordetzari; bereziki, Berdintasun Batzordeak eta Euskara Batzordeak. Zabalkunde lana egitea web, mail edo sare sozialen bidez.
XEDE PUBLIKOA	Fakultatearen komunitatea.
EMAITZEN EBALUAZIOA	Batzordeetatik sortutako edukiei buruzko mezu eta web albiste kop.
ARDURADUNA	Komunikazio Dekanordetza (batzordeetako arduradunekin elkarlanean).
DATA	2023-2026.
ARDATZ / HELBURU ESTRATEGIKOA	3. GOBERNANTZA / 5. Ikastegiko batzordeen funtzionamendua aktibatzea.

EKINTZA	3.1.2. Fakultatearen identitate grafikoa eta korporatiboa garatzen eta sendotzen jarraitzea.
LOTUTAKO HELBURUAK	1.1 KPHE / 3.2 KPHE.
ESTRATEGIA	UPV/EHUren identitate korporatiboko eskuliburuko irizpideak mantentzea eta kanpo eta barne komunikazioko ekintzetan irizpide horiek betetzen direla bermatzea. Beharrezkoa izanez gero, fakultateko kideei gogoratzea irizpide horiek mantentzeko beharra.
XEDE PUBLIKOA	Gizartea, Fakultatearen komunitatea.
EMAITZEN EBALUAZIOA	Komunikazio ekintzetan irizpideak bete direla egiaztatzea.
ARDURADUNA	Komunikazio Dekanordetza.
DATA	2023-2026.
ARDATZ / HELBURU ESTRATEGIKOA	3. GOBERNANTZA.

EKINTZA	3.1.3. Eguneratuta edukitzea web orriaren edukiak.
LOTUTAKO HELBURUAK	1.1 KPHE / 2.1 KPHE / 2.2 KPHE / 2.3 KPHE / 3.2 KPHE.
ESTRATEGIA	Aldian behin elikatzea eta eguneratzea informazio orokorra, kudeaketa informazioa, graduako eta graduondoko irakaskuntza eskaintzari buruzkoa (klaseen ordutegiak (klaseen ordutegiak/azterketak/egutegiak), prestakuntza dualaren eskaintza, GRALei eta abarrei buruzko informazioa, etab.
XEDE PUBLIKOA	Gizartea, Fakultatearen komunitatea.
EMAITZEN EBALUAZIOA	Aldian behin errepasatzea fakultateak elikatutako atal espezifikoak.
ARDURADUNA	Dekano taldea.
DATA	2023-2026.
ARDATZ / HELBURU ESTRATEGIKOA	3. GOBERNANTZA.

EKINTZA	3.1.4. Kolektiboei mezuak neurrian bidaltzea.
LOTUTAKO HELBURUAK	
ESTRATEGIA	Email bidezko komunikazio kanala ez gainezkatzen eta kolektibo bakoitzari zuzendutako edukiak ahal den neurrian segmentatzen saiatzea.
XEDE PUBLIKOA	Fakultatearen komunitatea.
EMAITZEN EBALUAZIOA	Komunikazio Bulegotik fakultatearen banaketa zerrendetara bidalitako mezu kop.
ARDURADUNA	Komunikazio Dekanordetza.
DATA	2023-2026.
ARDATZ / HELBURU ESTRATEGIKOA	2. PERTSONAK ETA KOMUNITATEA.
EKINTZA	3.1.5. Komunikazio kanalen irisgarritasuna bermatzea.
LOTUTAKO HELBURUAK	1.1 KPHE / 2.1 KPHE / 2.2 KPHE / 3.2 KPHE.
ESTRATEGIA	Komunikazio Bulegoak emandako jarraibideak betetzea (hala nola azpigituluak sartzeta edo tratamendu grafiko egokia), komunikazio bideak eta bide horietarako euskarriak iris-garriak izan daitezen ikasleentzat eta dibertsitate funtzionala duten pertsonentzat.
XEDE PUBLIKOA	Fakultatearen komunitatea.
EMAITZEN EBALUAZIOA	Multimedia teknikariek jarraibideak betetzen dituztela egiaztatzea.
ARDURADUNA	Komunikazio Dekanordetza eta UPV/EHUren Komunikazio Bulegoa.
DATA	2023-2026.
ARDATZ / HELBURU ESTRATEGIKOA	2. PERTSONAK ETA KOMUNITATEA / 5. Bizikidetzeta, pertsonen zentzu zibikoa eta azpiegiturak 3. GOBERNANTZA.

3.2. Lan giro ona eta ikastegiko kide izatearen sentimendua sustatzea.

EKINTZA	3.2.1. Ikasle egresatuak EHUALUMNI programan sar daitezen sustatzea.
LOTUTAKO HELBURUAK	1.1 KPHE / 2.1 KPHE / 3.1 KPHE.
ESTRATEGIA	Programari buruzko informazioa ematea, laugarren mailako ikasgeletan hitzaldiak ema-nez, informazioa zabalduz hainbat kanalen bitartez, edo EHU Alumni liburuxkak banatuz GRALen defentsa ekitaldietan.
XEDE PUBLIKOA	Ikasleak (4. mailakoak batez ere).
EMAITZEN EBALUAZIOA	EHU Alumni programan urtean sartutako ikasle berrien kop.
ARDURADUNA	Komunikazio Dekanordetza.
DATA	2024-2026.
ARDATZ / HELBURU ESTRATEGIKOA	2. PERTSONAK ETA KOMUNITATEA.
EKINTZA	3.2.2. Irakasleak ADITUAK programan (edo antzekoetan) sar daitezen sustatzea.
LOTUTAKO HELBURUAK	2.1 KPHE / 3.1 KPHE.
ESTRATEGIA	Sare sozialetan eginiko kanpainen eta informazio mailing bidez, irakasle-ikertzaileak ani-matzea ADITUAK programan (edo antzekoetan) sartzera, hedabideei laguntzeko fakulta-teko espezialistak aurkitzen.
XEDE PUBLIKOA	Hedabideak, Irakasle-ikertzaileak.
EMAITZEN EBALUAZIOA	EHU ADITUAK programan urtean sartutako pertsona kop.
ARDURADUNA	Komunikazio Dekanordetza.
DATA	2024-2026.
ARDATZ / HELBURU ESTRATEGIKOA	2. PERTSONAK ETA KOMUNITATEA 4. INGURUNEA ETA GIZARTEA / 5. Ikastegiaren jardueraren komunikazioa eta proiektzioa hobetzea: fakultatearen presentzia gizartean.

ERINTZA	3.2.3. Ikasleentzako lehiaketak antolatzea.
LOTUTAKO HELBURUAK	
ESTRATEGIA	Adibidez, Gabonetako postalen lehiaketa, etab.
XEDE PUBLIKOA	Ikasleak.
EMAITZEN EBALUAZIOA	Parte hartzaile kop.
ARDURADUNA	Komunikazio Dekanordetza.
DATA	2024-2026.
ARDATZ / HELBURU ESTRATEGIKOA	2. PERTSONAK ETA KOMUNITATEA / 2. Inplikazioa eta kide izatearen zentzua.
ERINTZA	3.2.4. Plan Estrategikoa, jarraipen txostenak, ikastegiaren memoriak eta abar hedatzea.
LOTUTAKO HELBURUAK	3.1 KPHE.
ESTRATEGIA	Fakultateko kolektibo guztiek ikastegian hartutako erabakien eta kudeaketa ekintzen berri izan dezaten bermatzea, dagozkion dokumentuak argitaratuta web orrian, kartel eta email bidez, beharrezkoa izanez gero.
XEDE PUBLIKOA	Fakultatearen komunitatea.
EMAITZEN EBALUAZIOA	Emailak bidali direla eta dokumentuak web orrian argitaratu direla egiaztatzea.
ARDURADUNA	Dekano taldea.
DATA	2023-2026.
ARDATZ / HELBURU ESTRATEGIKOA	3. GOBERNANTZA / 3. Kalitate politika finkatzea eta hedatzea.

EKINTZA	3.2.5. Tutoretza programak sustatzea.
LOTUTAKO HELBURUAK	3.1 KPHE.
ESTRATEGIA	Ikasleen harrera eta tutoretzari lotutako programak bultzatzea (Ikaskide, Buddy eta an-tzekoak), barne komunikazioko kanalen bitartez. Sare sozialetan kanpainak egitea. Horre-la, berdinen arteko topaketa eta tutoretza erraztea.
XEDE PUBLIKOA	Ikasleak.
EMAITZEN EBALUAZIOA	Bilera presentzial kop. Mail bidezko informazio bidalketa kop.
ARDURADUNA	Akademia Antolakuntzako, Nazioarteko Harremanetako eta Komunikazioko Dekanordetzak.
DATA	2024-2026.
ARDATZ / HELBURU ESTRATEGIKOA	2. PERTSONAK ETA KOMUNITATEA / 4. Tutoretza ekintza plana garatzea.

EKINTZA	3.2.6. Hurbileko eta zuzeneko harremana izatea ikasleekin.
LOTUTAKO HELBURUAK	3.1 KPHE.
ESTRATEGIA	Ikasleen ordezkariari aktiboki entzutea sustatzea.
XEDE PUBLIKOA	Ikasleak.
EMAITZEN EBALUAZIOA	Entzute aktiboko sarearen urteko balorazio kualitatiboa.
ARDURADUNA	Akademia Antolakuntzako Dekanordetza.
DATA	2024-2026.
ARDATZ / HELBURU ESTRATEGIKOA	2. PERTSONAK ETA KOMUNITATEA / 4. Tutoretza ekintza plana garatzea.

EKINTZA	3.2.7. Graduazio ekitaldiak antolatzea eta hedatzea.
LOTUTAKO HELBURUAK	1.1 KPHE / 3.1 KPHE.
ESTRATEGIA	Ikasle egresatuak ordezkaturuta eta aitortuta sentituko diren programa bat antolatzea. Omendutako promozioen datu garrantzitsuak helaraztea Komunikazio Bulegoari, bai eta programa osoa ere, hedabideen bidez zabaltzeko. IRI/AZP/kanpoko eragileei (enpresei) aintzatespena.
XEDE PUBLIKOA	Ikasle egresatuak, Irakasle-ikertzaileak, Gizartea.
EMAITZEN EBALUAZIOA	Jarraipen batzordearen urteko ebaluazio kualitatiboa.
ARDURADUNA	Dekano taldea.
DATA	Maiatza eta ekaina. 2023-2026.
ARDATZ / HELBURU ESTRATEGIKOA	2. PERTSONAK ETA KOMUNITATEA / 2. Inplikazioa eta kide izatearen zentzua 4. INGURUNEA ETA GIZARTEA / 5. Ikastegiaren jardueraren komunikazioa eta proiektioa hobetzea: fakultatearen presentzia gizartean.
EKINTZA	3.2.8. Lehen mailako ikasleen ongietorri ekitaldi presentzialak berreskuratzea.
LOTUTAKO HELBURUAK	3.1 KPHE.
ESTRATEGIA	Harrera egitea lehen mailako ikasleei ongietorri ekitaldi presentzial baten bidez, kolektibo horrek eskatzen duen informazioa ematea erraztu eta hurbiltasun eta harrera sentimen-dua piztuko duena.
XEDE PUBLIKOA	Ikasleak (lehen maila).
EMAITZEN EBALUAZIOA	Gogobetetzea bertaratuentzako inkesta bidez.
ARDURADUNA	Dekano taldea.
DATA	Iraila 2024-2026.
ARDATZ / HELBURU ESTRATEGIKOA	2. PERTSONAK ETA KOMUNITATEA / 2. Inplikazioa eta kidea izatearen sentimendua.

EKINTZA	3.2.9. GJHekin lotutako ekintzen hedapena sustatzea.
LOTUTAKO HELBURUAK	1.1 KPHE / 3.1 KPHE.
ESTRATEGIA	Modu eraginkorren eta arreta bereziz komunikatzea berdintasunaren, irisgarritasunaren eta jasangarritasunaren arloko ekintzak, bai eta garapen jasangarrirako helburuei loturiko beste ekintza batzuk ere. Amankomuneko ondasunen eta iraunkortasunaren aldeko sentsibilizazioa.
XEDE PUBLIKOA	Fakultatearen komunitatea, Gizartea.
EMAITZEN EBALUAZIOA	GJH (Garapen Jasangarrirako Helburuak) arloko hedapen ekintza kop.
ARDURADUNA	Kalitate eta Plangintza Estrategikoko eta Komunikazioko Dekanordetzak.
DATA	2023-2026.
ARDATZ / HELBURU ESTRATEGIKOA	4. INGURUNEA ETA GIZARTEA / 5. Ikastegiaren jardueraren komunikazioa eta proiektzioa hobetzea: fakultatearen presentzia gizartean.
EKINTZA	3.2.10. Gabonetako Luncha antolatzea.
LOTUTAKO HELBURUAK	3.1 KPHE.
ESTRATEGIA	Fakultateko kide izatearen sentimendua sustatzea eta ikastegiko kideen arteko harremanak eta komunikazioa estutzeko topagune bat antolatzea.
XEDE PUBLIKOA	IRI eta AZP.
EMAITZEN EBALUAZIOA	Jarraipen batzordearen ebaluazio kualitatiboa.
ARDURADUNA	Ikastegiko administrazio arduraduna.
DATA	Abendua. 2023-2026.
ARDATZ / HELBURU ESTRATEGIKOA	2. PERTSONAK ETA KOMUNITATEA / 2. Inplikazioa eta kidea izatearen sentimendua.



PLANAREN JARRAIPENA ETA KONTROLA

Dekano taldeak urtero aztertuko du planaren proposamenen betetze maila, kide hauek izango dituen jarraipen batzorde baten bidez:

- Dekano taldeko bi arduradun: Komunikazio eta Gizarte Proiektzio dekanordea; Plangintza Estrategiko eta Kalitateko dekanordea.
- Komunikazio teknikari bat, web unitatekoa.

Berrikuspena egingo da urte bakoitzeko urtarrila eta otsaila bitartean. Informazioa eskatuko zaio ekintza bakoitzaren arduradunari eta egoeraren txosten bat egingo da.
